

URNIETAKO

11

NEKANE KORTAXARENA

Nekane Kortaxarena Urnietako hamaikakorako aukeratua izan den bat da 2025eko euskaraldian. *E* letrarekin batera ikus dezakegu.

Nekanek 44 urte ditu, eta bere lau anai-arrebetatik gazteena da. Bi alaba ditu: bata 14 urtekoa eta bestea 10 urtekoa. Gaur egun, Nekane *Magale* ikastetxeko irakaslea eta zuzendaria da. Gaztea zenean, eskubaloian jokatzeari gustuko zuen, eta txistua jotzea ere bai.





ANTTON JAUREGI

Antton 1963an jaio zen Urnietan. Txistulari eta musika-irakasle ezaguna da . Gaztetatik erakutsi zuen musikarekiko interesa: 9-10 urterekin jo zuen lehen aldiz txistua, Justo Egaña maisuarekin. Magisteritza ikasi zuen Donostiako Seminarioan eta Hernaniko Institutuan egon zen ikasle. Gaur egun, Egape Ikastolan musika-irakasle gisa egiten du lan. Bestalde, Txanbolin Txistulari Taldeko kidea ere da, eta hainbat konposizio egin ditu taldearentzat, Urnietako historiaren eta kulturaren isla izateko helburuarekin.



JON UNANUE

Jon Unanue Lopez, Urnietako hamaikakorako aukeratua izan den bat da 2025eko euskaraldian, 5 letrarekin batera ikusiko dugu.

Oso gaztetatik hasi zen Donostian euskara eskolak ematen, eta hainbat urtez aritu zen irakasle lanetan euskaltegi desberdinetan. Zuzenbide ikasketak hasi bazituen ere, itzultzaile gisa lan egiten hasi zen Gipuzkoako Foru Aldundian, eta denbora gutxian lortu zuen Andoaingo Udaleko itzultzaile-interprete plaza. EIZIEko kidea da hasieratik, eta diruzain izan zen 1989 eta 1990 urteetan.

2004tik aurrera, Andoaingo Udala eta Larramendi Bazkuna elkarteak sinatutako hitzarmenari esker, Jon Unanue elkarte horren programazioa kudeatzen eta zuzentzen hasi zen, Andoaingo Udalaren babesarekin.





UNAI GAZTELUMENDI

Unai Gaztelumendi 1988an jaio zen Añorgan. Gazte gaztetatik Hernaniko bertso eskolan ibili izan da, Santutxuko, Lasarteko, eta Añorgako bertso eskoletan bezala. Oso txikitatik aitzak bi anaiei sartu zien bertsolaritzarekiko grina, oso umetan hasi baitziren plazetan kantari. Gaur egun, Unai bertsolaria da plazetan. Gaijartzaile eta marrazkilari aritu da askotan





UNAI LEGARRETA

Unai Legarreta Astiasaran Urnietako aurtengo euskaraldiko hamaikakoko partaideetako bat da. Unai 30 urte inguru ditu eta Urnietan jaio zen. Egapeko iraskalea da eta Gorputz Hezkuntza irakasten du. Horretaz gain, pilotako hainbat jokalaria entrenatzen ditu eta Euskal Pilotako Euskal Federazioan lan egin du.





AMAGOIA MUJIKA

1971. urtean, Andoainen jaio zen. Gaur egun Euskal Herriko kazetaria eta *Berria* egunkariko zuzendaria da. Kazetaritzan lizentziatu zen. Lehen praktikak Euskadi Irratian egin zituen, ondoren, *Aiurri* aldizkarian lanean aritu zen. 1995ean *Euskaldunon Egunkarian*-n hasi zen. Gero, *Egunero*-n lanean aritu zen. Donostiako Musika Hamabostaldian ere lan egin zuen, komunikazioan. Berriemaile gisa, Venezuelako hauteskundeetan eta Ukraniako gerra hasi berria zegoenean aritu zen. 2019. urtean *Berriako* zuzendariordea izan zen, 2023. urtera arte zuzendari bezala jarri zutenean Martxelo Otamendiren ordeiz. *Euskaldun Egunkarian* 700 artikulua idatzi ditu, eta *Berria* egunkarian 800 artikulua baino gehiago idatzi ditu.



NAROA URBIZU

Naroa Urbizu Kortaxarena 20 urte inguru dituen neska gazte bat da. Naroak aurtengo Euskaraldian parte hartuko du eta A letra eusten du argazkian.

Poxta Zaharreko kidea da. Poxta Zahar elkarteak Urnieta herriko festak antolatzen ditu, gazteentzat aktibitateak prestatzen. Hurrengo lanak laster izango ditu, Gazte Festak antolatzen.

Naroa Egapeko ikasle ohia da .



IMANOL ANSA

Imanol Ansa 1995ean jaio zen, azaroaren 2an, Urnietan, Gipuzkoan. Pelotari bat da eta erremontea egiten du. Ansa II ezagutzen dute.

2015eko apirilaren 18an bere ibilbide profesionala hasi zuen. 2023ko otsailean banakako Master Kutxabanka irabazi zuen, eta urte bereko irailean txapela irabazi zuen Banakako Erremonteko Eusko Label txapelketan.

2024ko irailan titulua berretsi zuen eta 2025ko otsailean bere hirugarren txapela irabazi zuen. Horretaz gain, bere familiako sagardotegian lana egiten zuen.



XABIER ALTUNA

Xabier Altuna gaur egun Urnietako (Gipuzkoa) Galarraga baserrian dagoen Altuna Sagardotegiaren arduraduna da. 1904an sortutako sagardotegi hau familiak zuzendu du hainbat belaunalditan zehar, eta Xabierrek negozioaren laugarren belaunaldia ordezkatzeko du. Bere gidaritzapean, sagardotegiak konpromiso sendoa du sagardoaren tradizioarekin eta kalitatearekin.







GUANGLI WEN CHEN

Guangli Wen Chen Txinako hirigune jendetsu batean jaio zen, Pekinetik ehun kilometrotara. Duela 22 urte iritsi zen Euskal Herrira, eta gaue egun hemen bizi da.

Ikasketen aldetik, pedagogia ikasi zuen, eta gero enpresa-arloko master bat egin zuen. Hizkuntzekiko interesa beti izan du; bere jaioterriko hizkuntzaz gain, beste batzuk ere ikasi ditu, eta gaur egun, euskara ikasten ari da.

Txinan ikasketak bukatu ostean, beka bati esker etorri zen Euskal Herrira. Hemen, enpresa batean hasi zen lanean, non lankide gehienek euskaraz egiten zuten. "Nik orduan gaztelaniaz hitz egiten nuen, baina barruan nuen ametsa noizbait euskaraz moldatzeko gai izatea", gogoratu du.





ENARA DONAVERA

Enara Donavera Garcia aurtengo Euskaraldiko Urnietako hamaikakoko partaide bat da. Enara Donaverak 18 urte ditu eta Urnietan jaio zen. Txikitatik trikitixa eta pianoa jotzen egon da Urnietako musika eskolan. Zuzenbidea ikasten ari da EHU-n Donostiako fakultatean. Duela urtebete, Jone Izagirrerekin batera Euskal Herriko trikitixa elkartearen Cover Lehiaketan sailkatu zen. Gainera, *Haritik* diskoa atera zuen beste bi lagunekin batera eta diskoko kanta bat *Itxaropena* da.

